

MagialdiArabak XII. edizioa egingo du, eta ilusioa eramane du lurraldeko 15 herritara

Programa abuztuaren 29tik irailaren 12ra bitartean garatuko da, Magialdiaren aurretik, eta batera programazioko 22 egun izango dira

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 27a. MagialdiArabak 2026an egingo du hamabigarren edizioa, magia lurralde osora hurbiltzeko apustua sendotuz. Oraingo honetan, programa abuztuaren 29tik irailaren 12ra bitartean iritsiko da Arabako 15 herritara.

Prentsaurrekoan aurkeztu dute gaur Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak, Arantxa Ibañez de Opacua Vital Fundazioko zuzendariak eta Jose Ángel Suárez jaialdiko zuzendariak.

Jaialdiak prestakuntza, sorkuntza eta hedapena bateratuko ditu berriz ere, eta aurreneki ere Magialdiaren aurretik izango da, Vitoria-Gasteizko nazioarteko magia jaialdiaren aurretik irailaren 14tik 20ra. Horrela, bi ekitaldien artean 22 programazio egun izango dira, guztira.

MagialdiAraba Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak eta Vital Fundazioak sustatzen dute, parte hartzen duten udalen lankidetzarekin. Edizio horretan, 37 eskaera jaso dira lurraldeko hainbat herritatik, eta horrek erakusten du gero eta interes handiagoa dagoela ekimen horri heltzeko.

Programak ohiko formatua izaten jarraitzen du: magia ikuskizunak, hurbileko magia eta haurrei zein helduei zuzendutako tailerrak. Magia saioak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Haurrentzako magia tailerrak euskaraz izango dira guztiak.

Ikuskizunak zirkuituko ohiko artistek egingo dituzte: Asier Kidam, Tor Magoa, Hodei Magoa, Imanol Ituíño, Txoborro Magoa eta Mago Altrius, besteak beste.

MagialdiAraba 2026ko ibilbidea hau izango da:

Abuztuak 29	KORRES (Arraia-Maeztu)	Arabako Mendialdea
Abuztuak 30	MANZANOS (Erriberabeitia)	Añana
Abuztuak 31	LAGRÁN	Arabako Mendialdea
Irailak 1	LEGUTIO	Zuiako Kuadrilla
Irailak 2	OKONDO	Aiaraldea
Irailak 3	LARRAZUBI	Añana
Irailak 4	LARREA (Barrundia)	Arabako Lautada
Irailak 5	URARTE	Arabako Mendialdea
Irailak 6	ARAIA (Asparrena)	Arabako Lautada

Irailak 7	ARGANTZON	Trebiñu
Irailak 8	VILLANUEVA DE VALDEGOVÍA	Añana
Irailak 9	IBARRA	Zuiako Kuadrilla
Irailak 10	LANGRAIZ	Añana
Irailak 11	DONE BIKENDI HARANA	Arabako Mendialdea
Irailak 12	AGURAIN	Arabako Lautada

Argibide gehiago: www.magialdia.com/